

Josemari Velez de Mendizabal

Joxe Letona: ehun urte

N

orberaren jaioterriarenganako sentimendua, gizakiaren funtsezko abiapuntu emozionala ez ezik, nor bere izpirituarekin ongi egoteko ezinbesteko baldintza da. Gizakiok, herriarenganako pertenezien sentimendua gartu dugu eta normalean denok eraikitzen dugu oharkabean herriarekin, modu batean edo bestean, lotzen gaituen zubia. Badira, ordea, sentimendu horren ezarian bizi direnak, baina –esango nuke– terapia psikiatrikoaren premian daude.

Espektroaren mutur osasuntsuan ditugu herriarenganako atxikimendua erroetaraino barneratua daramatenak, herriaren usainik ezean bizi ezin daitezkeenak. Herri guztiek eman dituzte horietakoak, gizon emakume herrikoiak. Pertsonaia herrikoiak, gizarte ondarearen zati nabarmen aberatsa gertatu ohi dira, zein arlokoak diren berdin diolarik. Pertsonaia herrikoia herri oroitzapenaren protagonista izaten da, solasaldietako subjektu pasiboa, txaskarriletako aktorea eta herri fantasiaren eragilea. Baina bada beste nolakotasun bat, normalean pertsonaia herrikoiekin bat etortzen dena, eta –nik behintzat– ezagutu ditudan kasu guztietan aurreneko planoan ageri dena: eskuzabaltasuna. Nik ez dut uste izan daitekeenik herrikoiki zekenkeriatik. Ospetsua bihur daiteke pertsona bat, hori bai, maitatua edo gorrotatua –bi sentimendu horiek ezin dira ezkondu herrikoitasunarekin– eta gainera, lasai asko, ospea ergelkeria eta zitalkeriaren praktikatik jaso daiteke. Beharbada, eskuzabaltasunari apaltasuna gehitu behar zaio gizartearen substratu guztiek onartua izateko.

Iragan azaroaren lehenean bete ziren ehun urte, Arrasaten Joxe Letona Arrieta jaio zela. Joxe gizon herrikoia izan zen, ezagutu genuen guztion iritziz. Joxe Letonari herritartasunak azalaren poroetatik aldegiten zion, etengabe. Gizon intelektuala genuen –frogatua geratzen da ez dela arlote izan behar herriaren hatsarekin bat egiteko–, XX. mendearen lehen hereneko Arrasate hartan intelektuala izateak adierazten duen mugekin, batez ere sendi langileko semea denean. Udal artxiboaren arakatzaile nekaezina



DANI BLANCO

izan genuen, bere aurretik Esteban de Garibay, Miguel Madinabeitia eta Juan Carlos Guerraren gisako pertsonaiek irekitako bideari jarraikiz. Haiek ez bezala, Letonak uztartu egin zituen lan intelektuala eta herriarekiko ukipen zuzena. Horrexek eta bere eskuzabaltasun neurri-gabeak bilakatu zuten herrikoia.

Liburuak idatzi zituen, makina bat ikerketa lan burutu zituen eta beste hainbestetarako materiala eskaini zion, bila joan zitzaionari. Arrasateko Udalak 1987ko urtarrilaren 30ean ekitaldi txiki bat eratu zuen Joxeren omenez eta brontzezko herensugea eskaini zion. Herritar askoren ustez, ekitaldia ez zen Letonak merezitakoaren arabera gertatu. Urte hartako uztailaren 4an hil zen Joxe.

Orain, gizon jator hura jaio zenetik ehun urte bete direnean, Arrasateko herritarrek gogora ekarri dute, brontzea

Arrasateko herritarrek gogora ekarri dute Joxe Letona.

Modu xume-xume batez, omenezko keinua posible dela, eta

herri kulturaren iturrietatik edan zuen pertsonaia herri

kultura-ondarea gau eta egun aberasten saiatu zela

oroitarazi gura izan dute, belaunaldi berriek

erreferenteak behar baitituzte

eta marmola ongi daudela, baina giza kolektibo gisa eskerrona aurkeztu nahi ziola Letonari. Erakutsi nahi izan dute, modu xume-xume batez, omenezko keinua posible dela, eta herri kulturaren iturrietatik edan zuen pertsonaia herri kultura-ondarea gau eta egun aberasten saiatu zela oroitarazi gura izan dute, belaunaldi berriek erreferenteak behar baitituzte. Herri markarekin zizelkatuta dauden gizon-emakumeak ezinbestekoak ditugu, gure herri honek –hizki xehe zein larriz– aurrera joko badu. ■